

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan negozio eredu batek funtziona dezan beharrezkoak diren hornitzaile eta bazkide sarea deskribatzen dugu.

Ez da ohikoa enpresa batek negozio ereduko jarduera zehatz guztiak egiteko baliabideak izatea, horregatik, guk. gure enpresan hainbat laguntzak bilatu behar ditugu gure proiektua funtziona dezan.

Alde batetik, esan beharra dago, guk ez garela artisteekin kontaktuan jarriko beraien kontzertuak gure betaurrekoetan emititzeko, baizik eta, kontzertuak antolatzen dituzten enpresekin. Bestetik, lortu behar ditugu aretoetan 360 graduko kamarak ipintzeko baimenak. Izan ere, gure asmoa da kamarak aretoetan betirako ipintzea eta gure betaurrekoetan emitituko ez ditugun kontzertuak areto haietan egon arren, kamarak ez dira kenduko, itzalita egongo dira.

